

{ datorrena } Iñaki Soto

Internazionalismoa eta irakaspen iraultzaileak

1 8 urte nituenean Kubara joan nintzen brigada internazionalista batean. 1993. urtea zen. Dakizuenetz, herriaren askapenerako estrategia politiko-militarra zegoen mar-txan Euskal Herrian eta Kuban *periodo es-pecial* delakoa bizitzen ari ziren. Iraultza egin nahi genuen eta iraultzaz ikastera joan ginen. Inter-nazionalismoa funtsezkoa da ezkerreko ildo politiko eta ideologikoarentzat. Teoria, balioak eta praktika ikasi ge-nituen. Kubari buruz, baita euskal herritarrei buruz ere, han ikasitakoak altxor politikoa izan dira niretzat.

Iraultza egin nahi duenak Kuba ezagutu behar du. Munduan kasu bakarra da, iraultzen mendearen oinordeko ezagunena eta ziur asko interesgarriena. Duela hiru hamarkada guk Kubara eraman genituen kezkak eta beraiek zituztenak, ordea, ze-haro desberdinak ziren. Guk matxinadarako ereduak bi-latzen genituen eta beraiek biziraupena ziurtatu behar zuten. Gutako batzuek Silvio abesten zuten gauez, eta, be-raiek, bioteknologia ikertzen zuten monetarismoarekin eta logistikarekin borrokan ziren bitartean. Guk oihane-ko Che-rekin amesten ge-nuen eta beraiek Ekonomia Ministerioko buru gisa egin-dakoak aztertzen zituzten –gainera, biek zituzten guk uste genuen baino askoz ñabardura gehiago–.

25 urte igaro dira. Askok uste zutenaren kontra, Kuba-ko iraultzak iraun du. Gurean, ordea, estrategia politiko-militarra bertan behera geratu da, gutako gehienok uste genuen negoziazio ereduarekin alderatuta, modu zeha-ro desberdin batean. Gaur egun, gure herriaren askape-nerako estrategia demokratiko-plebisztarioa da, nola-bait esateko. Dekantazio politikoaren eta aliantzen bidez gehiengoak lortuz eta aurrera egiten, independentzia lortu arte. “XXI. mendeko sozialismoa” deitu den horrek egin duen bezalaxe, baina gure testuinguruari egokitzuz, Europan. Katalunian ikusi dugunez, era horretan estatu-

rik gabeko nazio bat askatzea iraultzailea da, edonondik begiratuta ere. Botere nagusiei, bai espainiarrei baita eu-roparrei ere, agertoki horrek eragiten dien beldurra ho-rren erakusle da.

Hortik sozialismora ozeano politiko bat dago, jakina. Baina Syrizarren Gobernutik sozialismora ozeanoa ez ba-da itsaso zabala ere bazegoen, eta ikara eta amorru ber-dinak eragin zituen Europar Batasunean. Finean, gaur egun, herri bat independentziara eramateko metodoa eta sozialismora eramateko metodoa bat eta berdina baita: subiranotasuna, dekantazioa, gehiengo zabalak, ekimen instituzionalaren eta gizarte zibilaren arteko sintonia eta programa argi bat epe jakin batzuetarako.

Iraultza egin nahi duenak Kuba ezagutu behar du. Ez ordea, zaldian mendian ibiltzeko, baizik eta indar guz-

Herri bat independentziara eramateko metodoa eta sozialismora eramateko metodoa berdina da: subiranotasuna, dekantazioa, gehiengoak, erakundeen eta gizartearen sintonia, programa eta epeak

tien aurka Estatu bat eraikitzeko. Ez soilik sozialista gare-nok, Estatu baten egitura guztiak herritarren mesedetan jarri nahi duenak Kuba ezagutu behar du. Estrategia de-mokratiko-plebisztariorako, ordea, badira beste zenbait eredu, iraultzaileak eta agian interesgarriagoak.

Hautesleen testuinguru desberdinetara egokitutako baliabide teknologikoak eta programazioa, marketin po-litikoa eta segmentazioa, sareei egokitutako antolakun-tza formula berriak, komunitatea bertebratzeko ere-duak, diplomazia eta negoziatziorako teknikak, idazketa politikoa, militantzia eta aktibismo forma desberdinak... Horiek eta beste hamaika ikasterik nahi ez duenak ne-kez egingo du iraultza. Internazionalismoa ikastea baita.